

tti pi-ttapa

286. zenbakia • 2000ko irailaren 21a • XX. urtea

laz baino berrehun ikasle guttiago itzuli dira eskualdeko ikastetxeetara

4.354 ikaslek hasi dute ikasturtea eskualdeko ikastetxeetan, joan den urtean baino berrehun bat guttiago. Horieta-tik 307, hiru urte artekoak dira, lehen aldiz eskola edo ikastolara joan direnak, alegia. Euskara hutsean ikasten dutenen kopurua gero eta handiagoa da eta derrigorrezko ikasketetan %70era hurbiltzen da. Kopuru hori nabarmenagoa da Hegoaldeko ikastetxeetan, Saran eta Senperen frantses hutsean ikasten dutenak aunitz gehiago baitira. **4-5**



3 Elkarriketa: Ortillopitz etxea, XVII. mendeko euskal baserria

Elias Tapia saratarrak eta bere familiak XVII. mendeko baserri bat moldatu eta garai hartako itxura eman diote. Udan turistei ideki dizkiete atea, eta bi hilabetetan 7.000 bisitari baino gehiago hartu dituzte. Ortillopitz etxe-ko proiektuari buruz mintzatu gara hango arduradunarekin.

6 Gaurkotasuneko gaia: Gasoilaren prezioa goiti

Europa guzian bero-bero dago erregaiaren afera. Kaltetuenak garraioan aritzen direnak eta nekazariak dira. Nekazal sindikatuetako ordezkarien eta kamioilari baten iritziak bildu ditugu.

Lizaso Ezkurra baino gehiago izan zen finalean

Bingo-Londres erremonte txapelketa buruz-buruko finalean bi donez-tebarren arteko lehia izan zen aurten ere, baina aurtengoan Iñaki Lizaso nagusitu zitzaion txapel-dun handiari. Ezkurraren seigarren txapela izanen litzateke irabaziz gero, baina Lizasok ez zion hor-tarako aukerarik eman. Duela bi urte ere elkarren kontra jokatu zute Bingo Londres txapelketaren finala, eta orduan Koteto Ezkurraren esperientziak eta joku onak Lizaso urduria menpean hartu zuten.

Galarretan jokaturako partiduan, ordea, Ezkurrak ez zuen bere jokorik onena erakutsi, bere eguna ez zuelako, eta akaso bere herrikide eta lagunak utzi ez ziolako. Neurketa akintuta, kontent ageri zen Iñaki Martinez Lizaso: «Dudan horberena ematera atera naiz, zentratuta, eta egin behar nuena egin dut. Dena den, Ezkurrak ez du jokatu dakien guziaz, hori egia da».

27


Orain dela bi urteko finalaren errebantxa hartu zuen, herrikide eta lagunari 35-25 irabaziz



Argazkia: Edurne Koch



Hizkuntz Eskola Edoaiaren



30
URTE



1996.
urteko
zerbitzu
onenaren
aitzindari

Ateak ireki ditu
Matrikula epea: Iraila
Klaseak urrian
hasiko dira

- **Euskara**
- **Alemana**
- **Ingelesa**
- **Gaztelera**
- **Frantsesa**
- **Italiera**

☎ 948 510 635

Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA

☎ 943 670 052

Martin Jose Iraola - 8. • TOLOSA

☎ 943 674 733

Kondeko aldapa - 30. • TOLOSA

☎ 943 310 753



Ingelesa ikastea ez da hain garestia. Hemendik aurrera 3.500 Ptatik aurrera etxeko txikienek (4-9 urte bitartean) gaur egun hain beharrezkoa den hizkuntza hau ikasteko aukera izanen dute herrian.



AMEZTIA

o s t a t u a

Goiz goizetik irekia

Era guzietako
bokatetan
espezializatuak



Etxera, mendira, lanera
eramateko ere presta-
tzen dira

Ameztia karrika • DONEZTEBE • 948 450 028

DATUAK

❖ *Elias Tapia saratarrak eta bere familiak XVII. mendeko etxe baten itxura eman diote Ortillopitz etxeari, eta aurtengo udan ireki dizkiete ateak bisitariei.*

❖ *Uztaila eta abuztuaren 7.000 pertsona pasatu dira handik.*

❖ *XVII. mende inguruko euskaldunen bizimodua erakustea da asmoa: sagardoa egiteko tresnak, ogia egiteko labea, sukaldea, logelak...*

❖ *Historian, etnologian, artisautzan eta arkitekturan adituak diren pertsonen laguntza izan dute moldaketa lanak egiteko.*

❖ *Larun mendiaren hegalean dago Ortillopitz, Saint Ignaceko lepotik kilometro batera.*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
ASIER GOGORTZA

📍 **Elias TAPIA** Ortillopitz etxeako arduraduna

"XVII. mendeko teknika eta materialak erabiliz moldatu dugu etxea"

BI HILABETE DIRA ETXE-MUSEOA IREKI ZENUTENETIK. BISITARI AINITZ PASA DA?

Turistak nahiz hemengo jendeak franko ibili dira publizitate ainitzik eginik ez baguten ere. Abuztuaren hondarrerako 7.000 pertsona ibili dira, guk uste baino 1.000 gehiago. Beraz, gu kontent eta jendeak ere kontent, lehenagoko etxe bat atxiki dugulako.

ARRONT HISTORIA LUZEA DU ORTILLOPITZ ETXEAK. NOIZ HASTEN DA?

Joanes Ortillopitzek eginarazi zuen XVII. mendean, hortik heldu zaio izena. Baina hori baino lehenago hemen bazen beste etxe bat XVI. mendekoa. Guk atxeman dugun bezala XVII. mendeko etxea zen. Baina etxea hondatua zen, beraz, nere andre, koinatu, arre-barekin... pareta guziak garbitzen eta berriz kisurarekin zartatzen aritu gara 8 hilabetez. Lehenagoko teknika eta materialak ibiliz estiki-estiki moldatu dugu etxea. **ZERTAN OINARRITU ZARETE XVII. MENDEKO ITXURA EMATEKO?**

Bilboko pertsona batek lagundu gaitu ainitz, Alberto Santanak. Historian eta arkitekturan aditua da. Hemen harra-



«Horrelako etxe bat egiteko 500 arbol baino gehiago behar ziren botatu».

patu ditu XVI. mendeko etxearen zati batzuk, zura batzuk, harriak ere bai, gauza franko...

ZEIN DIRA XVI. MENDEKO ETA BERANTAGO EGIN ZIREN BASERRIEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK?

XVI. mendeko baserriak irekidura ainitz guttiago izaten zituzten eta zureria diferentak. Zurrik handiagoak, behe-

tik teilaturaino ailegatzaren ziren posteak.

Gero XVII. mendean egurrak hasi ziren tikitzen, etxe honek hale-re baditu zurak animalekoak. Horrelako etxe bat egiteko 500 arbol baino gehiago behar ziren botatu. Hemen gehienak harri pikatuz eginko paretak dira, gero kisua... egurra, berriz, gaztaina edo haritza bakarrik. Gaurko etxeekin ez dute deus ikusteko. **HEMEN ERAKUSTEN DIREN TRESNA ZAHARRAK NON LORTU DITUZUE?**

Batzuek Lesakan eginarazi ditugu, beste

batzuek hemen etxean zeuden... gaurko egunean gauza gutti ditugu egiazki garai hartakoak. XIX. eta XX. mendeko gauza ainitz kendu ditugu, ez baitugu interesik hori erakusteko. Agian sartuko ditugu tresna gehiago afera aurrera josten baldin bada. **DIRULAGUNTZARIK IZAN DUZUE LAN GUZI HAU EGITEKO?**

Ez, hau familian montatua dugu, laguntzarik gabe. Gaurko egunean ez dugu sos bat ere hartu, dena gure sakeletik eta bankuko kreditutik ateratu dugu.

❖ *Hau familian montatua dugu, laguntzarik gabe. Gaurko egunean ez dugu sos bat ere hartu, dena gure sakeletik eta bankuko kreditutik ateratu dugu.*

Hiru hilabeteko atsedena izan ondotik, irailaren bigarren astean itzuli ziren eskualdeko ikastetxeetara Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ariko diren hiru eta hamasei urte arteko 3.674 ikasleak. Baita institutu eta lizeoetan Batxilergoa edo Heziketa Zikloak ikasiko duten 680 gazteak. Euskara hutsean ikasten dutenen kopurua gero eta handiagoa da eta derrigorrezko ikasketetan ari direnen %70ra hurbiltzen da. Kopuru hori handiagoa da oraindik Iparraldeko ikastetxeetako ikasleak alde batera utzita, Sara eta Senperen oraindik frantses hutsean ikasten dutenak gehiengoa baitira.

TESTUA: AITOR AROTZENA



2000-2001 IKASTURTEA

4.354 ikasle itzuli dira eskualdeko ikastetxeetara

Berriki 4.354 ikasleak hasiera eman diote 2000-2001 ikasturteari eskualdeko ikastetxeetan, joan den urtean baino berehun bat guttiago. Horietatik 3.754 derrigorrezko hezkuntzan arituko dira (843 Haur

Hezkuntzan, 3 eta 6 urte artekoak; 1.734 Lehen Hezkuntzan, 6 eta 12 urte artekoak) eta 1.177 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (12 eta 16 urte artean). Aurten, bi eta hiru urteko 307 ikasle hasi dira eskualdeko ikastetxeetan, horietatik 195 ikastetxe publikoetan, 74 ikastoletan eta 38 ikastetxe pribatuetan.

Gainerako 680 ikasleek, Batxilergoa, Heziketa Zikloak edo Heziketa Berezian eman dute izena.

Nabaria da, halere, zenbat eta ikaslearen adina tikiagoa izan, orduan eta gehiago dirrela euskara hutsez ari direnak. Adibidez, aurten, 3 urterekin klasean hasi diren haur gehienek euskaraz ikasiko du-

te. Orain arte Iparraldeko eskoletan frantsesez ikasten zuten gehien bat, baina Ana Mari Curutchet, Sarako eskola publikoko erakasleak adierazi digunez, «*Ana Eskolan -3 eta 6 urte artekoak- ari diren guztiak elebidunean ari dira-*».

Erdara hutsean ari diren gehienak, aldiz, DBHko azken zikloetan edo Batxilergoan

2000-2001 Ikasturtea: Matrikulazio datuak

Eskola publikoak

| | Adinaren arabera | | | Euskara ereduak | | | Guztira | 3 urte arte |
|-----------------------|------------------|----------|-----|-----------------|-----|-----|---------|-------------|
| | Haur H. | Lehen H. | DBH | A | B | D | | |
| Arantzaga | 6 | 27 | 9 | - | - | 42 | 42 | 4 |
| Areso | 9 | 15 | - | - | - | 24 | 24 | 3 |
| Baztan ⁽¹⁾ | 58 | 115 | - | 5 | - | 168 | 173 | 16 |
| Beintza | 2 | 9 | - | - | - | 11 | 11 | 1 |
| Bera | 30 | 40 | - | - | - | 70 | 70 | 12 |
| Doneztebe | 76 | 175 | - | 24 | - | 227 | 251 | 23 |
| Elizandea | 63 | 141 | - | 65 | - | 139 | 204 | 20 |
| Eratsun | 2 | 8 | - | - | - | 10 | 10 | 0 |
| Elcazar | 13 | 33 | - | - | - | 46 | 46 | 5 |
| Gaiznela | 15 | 57 | 18 | - | - | 90 | 90 | 4 |
| Iparitzi | 15 | 29 | - | - | - | 44 | 44 | 3 |
| Ituren | 16 | 33 | - | - | - | 49 | 49 | 7 |
| Lagasa | 4 | 10 | - | - | - | 14 | 14 | 0 |
| Leitza | 57 | 164 | - | - | - | 221 | 221 | 19 |
| Lesaba | 37 | 77 | - | - | - | 114 | 114 | 20 |
| Nabarle | 9 | 20 | - | - | - | 29 | 29 | 2 |
| Saldias | 1 | 6 | - | - | - | 7 | 7 | 0 |
| Sara | 40 | 70 | - | 15 | 95 | - | 110 | 10 |
| Senpere | | | | 104 | 110 | 0 | 214 | 35 |
| " (Amotze) | | | | 34 | 0 | 0 | 34 | 2 |
| Suenbilla | 14 | 26 | - | - | - | 40 | 40 | 6 |
| Urb. Zugarramurdi | 10 | 20 | 8 | 2 | 6 | 30 | 38 | 3 |

(1) Baztanen haurrak eta lehenak ikasturtearen hasieran, Elizandean San Geronimo egun.

Ikastolak

| | Adinaren arabera | | | Guztira | 3 urte arte |
|-----------|------------------|----------|-----|---------|-------------|
| | Haur H. | Lehen H. | DBH | | |
| Bera | 45 | 88 | 85 | 218 | 19 |
| Elizandea | 45 | 110 | - | 155 | 15 |
| Lesaba | 42 | 46 | - | 88 | 23 |
| Sara | 15 | - | - | 15 | 6 |
| Senpere | 21 | 26 | - | 47 | 11 |

Pribatuak

| | Haur H. | Lehen H. | A | B | 3 urte |
|------|---------|----------|----|----|--------|
| | Bera | 24 | 55 | 15 | 64 |
| Sara | 22 | 48 | 20 | 50 | 8 |

Senperen 190 haur, 70 aholkulari, 3 urteko 22

Institutuak

| | DBH | H.Z. | Babil. | A | | | B | | |
|------------------------|-----|------|--------------------|-----|-----|-----|---|---|---|
| | | | | A | B | D | A | B | D |
| Bera | 198 | 47* | 87 | 56 | 82 | 194 | - | - | |
| Doneztebe | 218 | - | - | 24 | - | 194 | - | - | |
| Elizandea | - | 112 | - | - | 112 | - | - | - | |
| Leitza | 172 | - | 55 | 4 | - | 223 | - | - | |
| Leharaz | 289 | 20 | 142 ⁽¹⁾ | 123 | - | 328 | - | - | |
| Senpere ⁽²⁾ | 180 | 217 | - | 380 | 17 | - | - | - | |

* Arantzaga ikasturtearen hasieran, Elizandean San Geronimo egun.

(1) Leharaz ikasturtearen hasieran, Elizandean San Geronimo egun.

(2) Senperen ikasturtearen hasieran, Elizandean San Geronimo egun.

ari dira, Hegoaldeko institutu eta Iparraldeko lizeoetan.

Eskola tikieta ikasle gutti eta kezka aunitz

Urtetik urtera gehiago dira D ereduaren, euskara hutsean ikasten ari diren ikaslearen portzentaia. Datu kezka garrikerik ere bada, ordea. Urtero ikasle kopuru tikieta da Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, eta hori, herri tikieta eskolatan nabarmentzen da. Joxe Ramon Amoroso, Arantzako eskolako zuzendariaren erantzunak, «urtetik urtera ikasle guttiago dago, jaiotze tasa higitz tikieta dela nabari da eta eskola tikieta horren eragina nabarmena da». Arantzako eskolan 60 ikasle zituzten 1997-98 ikasturtean. Aurten, 42 bertzerik ez. Malerreka herri tikieta ere nabari da ikasle kopuruaren beherakada. Joan den ikasturtean Ezkurrako eskola itxi egin behar izan zuten, ikasle faltan. Erreka horretan ixten den azken eskola ez ote den izanena, kezka horixe azaldu digu Mikel Gereka irakasleak: «Etorkizun beltzera Saldiasetik

1999-2000 eta 2000-2001 ikasturteak eskualdeka

| | | Adinaren arabera | | | | | Euskara ereduak | | | Guztira | 3 urte arte |
|--------------------------|-------|------------------|----------|-----|------|--------|-----------------|-----|-----|---------|-------------|
| | | Haur H. | Lehen H. | DBH | H.Z. | Babil. | A | B | D | | |
| Baztan | 99-00 | 168 | 378 | 309 | 132 | 141 | 222 | 108 | 798 | 1.128 | 54 |
| | 00-01 | 166 | 366 | 289 | 132 | 142 | 193 | 112 | 790 | 1095 | 51 |
| Bortzirriak | 99-00 | 196 | 415 | 320 | 59 | 98 | 112 | 164 | 812 | 1.088 | 93 |
| | 00-01 | 212 | 395 | 292 | 47 | 87 | 71 | 146 | 816 | 1.033 | 94 |
| Leitzalde | 99-00 | 96 | 235 | 201 | - | 78 | 4 | - | 606 | 610 | 33 |
| | 00-01 | 81 | 236 | 190 | - | 55 | 4 | - | 558 | 562 | 26 |
| Mallerreka | 99-00 | 130 | 298 | 223 | - | - | 48 | - | 603 | 651 | 43 |
| | 00-01 | 124 | 287 | 218 | - | - | 48 | - | 581 | 629 | 39 |
| Sara-Senpere | 99-00 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| | 00-01 | - | - | - | - | - | 673 | 292 | 62 | 1.027 | 94 |
| Urb. Zugarramurdi | 99-00 | 12 | 19 | 5 | - | - | 2 | 11 | 23 | 36 | 4 |
| | 00-01 | 10 | 20 | 8 | - | - | 2 | 6 | 30 | 38 | 3 |

du. Eratsunen heldu dira atzetik haurrak, baina Saldiasen ez». 1997-98 ikasturtean 13 ikasle zeuden Saldiasen, aurten 7 bakarrik eta bakar bat ere ez da sartu bertzerik.

Autobuseko laguntzailea izanen da aurten

Aurtengoan berrikuntza,

ikastetxerako bidea autobusean egiten duten Haur, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako neska-mutikoek izanen dute, laguntzailea izanen baitute autobusean. Hori Bera, Doneztebe, Leitza eta Elizondoko ikastetxetan nabarrituko da gehienbat. Kasu batzuetan autobus

enpresak berak jarri du laguntzailea eta bertze batzuetan Guraso Elkarteak, beti ere Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Honela, gurasoen betiko kezka nolabait baretuko da, orain arte haur tikieta ez baitzuten eskolarako bidean autobus gidariaren zaindaritza bertzerik. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apeztekoa.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoin.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jakone Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Frederick Bernuet, Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Pello Apeztekoa, Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitzia,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mahkomunitatea, Zugarra-

murdikoko Akelarre Elkartea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 160 Libera

Europa ... 4.000 Pta.

Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jasotzen du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Gasoilaren garestitzea

**Jakin behar da ezantza-
prezioaren 3/4ak tasak
direla**



Jean Noel BEZUNART
Serpereko goraizolaria

Hemen ezantza-
ren gainean emen-
dazioe handiak
izan dira eta behar
da jakin gasoila gure ofizioan
prezioen laurdena dela kasik.
Bazen jada urte bat entseztan
ginela sindikatu bidez goberna-
mentuarekin harremanak izate-
rat, bainan ez da deus atera eta
azken momentuan jendea aski
nardatuta zegoenez pastu dira
pastu diren gauzak.

Ainutz tasa badira ezantza-
ren gainean, eta jende guzientzat,
bainan batez ere garraiolarien-
tzat ezinezkoa da... urte batean
%30a emendatu da, izugarrikoa.
Jakin behar da ezantza-
ren prezioaren 3/4ak tasak direla,
TVAA (hegoaldeko BEZA), petroleo-
aren gaineko tasa espeziala...

Guk ezin diegu fabrikei erran
behar direla prezioak %10 edo
%15 emendatu, inork ez du onar-
tuko, eta aterabide bat behar da.
Behar bada bat egin beharko li-
tzateke arrantza, laborari edo
garraiolariei bederen.

Inglaterran da Europako gasoil
garestiena. Belgikan, Holandan
eta Espainian ere mobilizazioak
hasi dira, Europa guzian fiskal
maila berdintsua baita. Nik us-
te Europa mailan behar bada bat
izatea behar litzatekeela eta de-
nek berdintsu pagatzea.

**Baserritarrek gehienez ere
40 pta/litroko ordaintzea
eskatzten dugu**



Ainhize MURATORI
UAGN sindikatu

Azkeneko urte ho-
netan gasoilaren
prezioak egin
duen gorakada
izugarria izan da. Igoera honek,
baserritar guztien produkzioen
garestitzea sortu du, errentak be-
herantz zihoazen heinean.
Produktzio kostean garestitzeak
Nafarroan, zortzirehun milioi
pezeta suposatzen ditu, horrela ja-
rraituz gero, datorren urtean mi-
la eta bostehun milioikoa izan-
go litzateke. Orainxe 82 peze-
tatan dago litroa. Hemengo ba-
serritarrek beste baserritar as-
korekin konpetitu behar du eta
honela ezinezkoa zaio. Arrazoi
honengatik antolatuta da mani-
festaldi bat irailaren 19rako
Nafarroako nekazaritza sekto-
rearen gehiengoa osatzen duten
bi sindikatuen artean. Eskerak
argiak dira, alde batetik, neurri
zehatz batzuk har ditzatela, ba-
serritarrek gehienez ordaindu-
ko duten prezioa 40 pta/litroko
izan dadin, eta bestetik baserri-
tarren errenten beharpena ore-
katzeko neurri desberdinak.

**Sutan egonik...
eta orain hau, gasoila**



Mikel PETERENA
EHNE sindikatu

Datuak azaltzen
dute ondo baino
hobeto zer nolako
egoeran aurkitzen
garen nekazariok. Iazko maiatze-
tik aurtengora bitartean B gasoila
%50ean garestitu da, gainon-
tzeko errekin ez izandakoaren
gainetik. Eta gainera iguera ez
dagelditu, abuztu amaieran bes-
te 4 ptan garestitu baitzen.
Larrialdi honen aurrean Espaini-
ako Gobernuak ez du fitxarik
mugitzen, jakina, hemen ere ba-
dira irabazten ateratzen direnak.
Petrolera eta Estatuko atek za-
balduz gero, horratz krisialdi ho-
nen motorra eta aldi berean onu-
radunak. Repsolek adibidez pu-
bliko egin du bere irabaziak
%278koak direla eta Estatuak,
bestalde, zergen bidez (hidrokar-
buroenak eta BEZA), aurtan
84.489 milioi pta jasoko ditu.
EHNEtik luzatu diegu Gobernu
Zentralari gure aldarrikapena:
Hidrokarburoen Zerga Berezia-
ren ezabapena nekazariarentzat,
espekulazio eta monopolizazio-
ari aurre egiteko nekazaritzeko
gasolearen prezioen kontrola
eta gehieneko prezio soziala fin-
katzea nagusiki nekazaritzan ari
direnentzat, 40 ptak gaintu ga-
be. Aldiberean, fiskalizazio bi-
dea ere jorratu behar da horren
zama nekazariari arinduaz.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jasotzen du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19tara

• Ortzegun eta ortziralean, betatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittia 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328-133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☎ Langile Autonomoak
- ☎ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☎ Lan-kontratarako laguntzak
- ☎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☎ Diru-laguntza ezberdinak
- ☎ Kontabilitateak
- ☎ IVA eta IRPF
- ☎ Errenta aitopenak
- ☎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☎ Bideragaitasun planak

PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Egunaria 00ko irailak 3

«Ez, hainko dieta berezirik ez dugu egiten. Gauza bakarra: orain hartzen dugu (makarroiak eta), baina ez dugu erregimen zorrotzik betetzen, zorionez. Eta jan, denetik jaten dugu. Haragia eta arraina... gehiena orca eta gutxiena, barazkia».

Asier eta Almar
OLAIZOLA
Goizuetako pilotariak
Egunaria 00-09-03

«Gaur egun, Guinness errekorretan hiru marka ditut: motozerrarekin 35 trontza egitea zortzi

metroko altueran, 13,60 metroan enborra moztean eta begi itxiekin hamar metroan enborra moztean».

Joxe **BIKONDOA**
Legislatza aitzolaria
Diario de Noticias 00-09-11

«Aurten profesioletura pasatzen ez bainaiz utzi egina dut, baina nire etorkizuna ez da Euskaltel taldera mugatzen».

Patsi **VILA**
Berako txirrindularia
Diario de Noticias 00-09-07

11 GALDERA LABUR

- ◆ **Bestetan, sukaldean lanean ala ostatuan?**
- ◆ Nahiago dut sukaldean ari.
- ◆ **Zein duzu janaririk gustokoena prestatzeko?**
- ◆ Arrainak eta postreak prestatzea gustatzen zait gehien.
- ◆ **Eta jateko?**
- ◆ Arrain gehienak ditut gustoko.
- ◆ **Zeren falta sumatzen duzu Igantziko bestetan?**
- ◆ Igantzikoak horrela ongi daude, baina Berrizaungoen falta sumatzen dut.
- ◆ **Herriko edo hirietako giroa duzu gustogoko?**
- ◆ Aukeran herrikoa nahiago dut.
- ◆ **Erosketak egin behar izanez gero, Iruñera ala Gipuzkoara?**
- ◆ Gehienetan Gipuzkoa aldera.
- ◆ **Filma baten izena?**
- ◆ Disneyen «Oihaneko liburua».
- ◆ **Astean, zein da zuretzat momentu edo egunik gustokoena?**
- ◆ Astelehen arratsaldea, ostatua itxita dagoelako.
- ◆ **Ostatuan musika paratzerakoan, zeinetaz ez zinatego inoiz aspertuko?**
- ◆ Musika mota gehienak gustatzen zaizkit, baina tarteka estiloa aldatuz.
- ◆ **Herrikoetxean bazina, zer egiten saiatuko zinatego?**
- ◆ Herrikoetxea lekuz aldatuko nuke, orain eskailera aunitz dagoelako.
- ◆ **Nora joanen zinatego urriaren 3an oporretan?**
- ◆ Eguraldi ederra dagoen edozein lekutara.

**Rake ETXARTE**

Igantzi jateko sukaldaria
IGANTZI

hauem dala
zuzentzen dena

JUP onetakoak
NEGUKO ZAPATAK
BERRIZ ERKOLINA!

Merkatarien kanika, 21 • **DONEZTEBE** • t. 948 451954

ETXANDI TXOKO
jatekua

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

KATTU

ostatu - jatekua

Pilote kombinatuak eta moxak

t. 94827573 • **LESACA**

Mirari

Pre-mama moda

Neguko kolezio berria
Neurri haundietan ere

Serapio Mugika, 14 • **IRUN** • t. 943 615886

ORDOKI ikoreak

ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako
haragi eta
arrainak

BEXUEN

3 metro garaitar eta gora
Egiteko zuzen: gurekin

Tel: 670 974025 • 667 418661

Langabetuendako ikastaroak antolatu ditu EHNE sindikatuak

Nekazaritza proiektu berriak izanen ditu ardatz

TTIPI-TTAPA

EHNE sindikatuak 150 gazteendako sei ikastaro antolatu ditu. Ikastaroak Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan egingen dira. Nekazari eta abeltzainen sindikatuaren helburua «nekazaritza gazteen instalakuntza bultzatzea, nekazaritza ikasketetan lizentziatuak birziklatzea eta landa eremuen eta dibertsifikazioaren inguruko autoenplegu proiektuak aitzinera ateratu daitezkeen animatzea da.

Bi lehendabiziko ikastaroak, «Nekazaritza eta landa eremuetako garapena. Autoenpleguari buruzko proiektuak» eta «Dibertsifikazio nekazaritza eta nekazaritza ekologikoa» izanen dira. Lehenbizikoak 90 ordu irauten du eta hainbat gai landuko ditu: Landa eremuetako soziologia eta nekazaritzako elkartegintza, Europako nekazaritza politika, gazteentzako dirulaguntza-planak baserrietan instalatzeko, eko-



Baratzagintza eta frutagintza ekologikoa, nekazaritza ekologikoari buruzko oinarriak eta bertze zenbait gai landuko dira dibertsifikazio nekazaritza eta nekazaritza ekologikoa ikastaroan.

Arbibokoa

logia eta ingurugiroa, nekazaritzako bertze alternatiba batzuk (neka-zalturismoa, transformazioa, komertzializazioa) eta kalitatea eta komertzializazioa: labelak, jatorrizko izenak, markak, bertzeak bertze. Ikastaro hau Gasteizen, Bilbon, Tolosan eta Iruñean egingen da.

«Dibertsifikazio nekazaritza eta nekazaritza ekologikoa» ikastaroa urrian egingen da, 80 orduz. Landuko di-

ren gaiak, berriz, honako hauek izanen dira: Nekazaritza ekologikoari buruzko oinarriak; baratzagintza eta frutagintza ekologikoa; ogigintza, mermeladak, konserbak eta bertze frutak batzuk; Konposaren ekoizpena eta erabilpena; sendabelarren ekoizpena eta erabilpena; fruitu txikien ekoizpena; komertzializazioa, eskualdeko eta herriko azokak; transformazio eta komertziali-

ziorako dirulaguntzak eta sanitarearen inguruko legeak eskatzen dituen baldintzak. Ikastaro hau Gasteizen eta Bilbon egingen da.

Bi ikastaroetan zenbait bidai egingen dira landa eremuetako garapenari buruzko esperientzia ezberdinak eza-gutzeko. Ikastaroak dohainik dira eta akautzean diplomak banatuko dira. Izena emateko EHNEren bulegoetara jo behar da.

Arkupeak elkartek Donostia bisitatuko du irailaren 28an

Irailaren 28an Donostiara bisita egingen dute Arkupeak erretiratuaren elkarteko kideek. Goizean Kursal berria bisitatuko dute eta turtean, hain famatuak diren Moneoren Kuboak ere ikusiko dituzte, baita artisautza denak eta museo bakarrak ere. Sarrera ordaindu beharreko lekuetan, bakoitzak berea ordaindu beharko du. Beranduago, eguraldi polita baldin bada, Igeldora joanen dira. 2etatik 2,30ak artean bazkaria izanen dute Ondarreta tenis jatetxean, Igeldoko funikulararen ondoan, honako menu honekin: Barazki menestra (potxak eskainiko dira), pikantoa guarnizioarekin, etxeko goxokiak txokolate beroarekin, kaba eta obiko edariak. Arratsaldean dantzaldia izanen da Modestorekin, baina itzuli bat eman nahi duenak bertan izanen du Ondarretako hondartza. Bidaiaren prezio, autobusa, musika eta janaria barne, 3.500 pezetakoa da.

PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA
Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tlnoa: 948 630 899 - BERA

Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekarietza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631 169

ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
948631106
BERA
EGUNERO MENJIA ETA KAKETA
Boda eta banketeak ematen dira

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
948 630 763

Benito Lertxundik Eztegarara frontoian joko du irailaren 30ean

Bortzirietako IKA Euskaltegiak antolatu du kantaldia

ASIER GOGORTZA

Iaz Mikel Laboa ikusteko parada izan bagenuen, aurten Bortzirietako IKAk bertze euskal kantari handi hau ekarriko du Berarat. Kontzertua heldu den igandean izanen da Eztegarara pilotalekuan, arratsko 10etan. Sarre-
rak Berako Errekalde ostatuan, Lesakako Kattun edo Matxinbeltzenea Euskaltegian, Zugarramurdiko Mari-
xanen, Irungo Bertso Hop-Bilintxen eta Doneztebeko Kaxerna ostatuan erosten ahal dira, 1.500 pezetatant. Aitzinetik denak saltzen ez badira takilan jarriko dituzte salgai.

Eneko eta Xabi

Hilabete baino gehiago pasatu da Espainiako Poliziak Eneko Zestau beratarra eta bere lehen-gusua Xabi atxilotu zituenean. Fiskalak beraien kontrako probarik ez du oraindik aurkeztu, eta ez da jakiten ahal noiz aurkeztuko dituen ere. Bitartean, nahiz eta leporatzen dizkieten delituak ukatu zituzten, bi gazteek Alcalá Mecoko (Madril) gartzelan segitu beharko dute.

Frontoia

Denboraldi berri ho-



netan Eztegarara frontoian pular, eskupilotan nahiz frontenisean jokatzeko ordua hartu nahi dutenek Toki Ona kiroldegian eman beharko dute izena. Bertzalde, aerobika, gimnasia eta karate ikastaroetan apuntatzeko ere orain da sasoia, hilaren 29a arte hain xuxen. Talde tikiak izanen dira, izen-emate ordenaren arabera.

Bortzirietako argazkilari afizionatuen erakusketa eginen da Beran

Eguberrietan Berako Kultur Etxean egitekoa den erakusketa begira, bortz herrietako argazkilari-tza zaletuen lanak biltzen hasia da Berako Kultur Batzordea. Zuri-beltzean nahiz koloretan, guttinez 6 argazki aurkeztu beharko du partehartzaile bakoitzak, honako gai hauekin lotura dutenak: paisaiak, erretratoak eta kultur ekitaldiak. Azaroaren 10a baino lehen eraman beharko dira argazkiak Kultur Etxera, arratsaldeko 3etatik 7etara. Argazki kopia bakoitzarekin batera argazkiaren negatiboa ere uztea eskatuko du antolakuntzak, gero beraiak hartuko baitute anpliazioak egin eta euskarriak jartzeko lana.

Flash

Inprobisazio tailerra

Irailaren 11z gerotik martxan da inprobisazioaren bidez espresioa landuko duen antzerki tailerra. Heldu den urteko ekaina bitarte astelehenero bilduko dira Kultur Etxean, arratsaldeko 5etatik 7,30ak arte. Apuntatzeko bertatik agertu.

Euskara ikasi

Bortzirietako IKA Euskaltegiak euskara ikasi edo hobetzeko ikastaroen epeak ireki ditu. Izena emateko deitu 948 637 796 telefonora, irailaren 29a baino lehen.

Kinto bazkaria

1974. urtean sortutako beratarrek bazkaria eginen dute irailaren 30ean, oraindik non ez badakite ere. Apuntatzeko, irailaren 23a baino lehen mugitu beharko da.

Dantzari Tiki

Igande honetan, hilak 24, VI. Dantzari Tiki Eguna ospatuko da. Goizean karriz-karriz dantzatu ondotik, arratsaldeko 6etan Eztegarara pilotalekuan saioa eginen dute talde guztiak batera.

Trafiko isunak

Guardia Zibilak azken boladan edozein ttikieriatatik isunak jartzen ari dira ezker eskuin. Autoarekin erne ibili beraz, edo bertzenaz bizikletan!

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgetza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

JARRIÑE - GOZOTEGIA

Auzoa: 10-94863796 - BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BOTXO
OSTATUA
© 948630052-Zalain-BERA

Mairu antzerki tailerrak ikasturte honetarako deialdia zabaldu du

Herri Eskolak, bertzalde, sendabelarren ikastaroa antolatu du

AITOR AROTZENA

Mairu Antzerki tailerrak ikasturte honetan antzerki munduan trebatzeko deialdia zabaldu du. Tailerra adin guzientzako pertsoneri irekia dago eta izen ematen duen jende kopuruaren eta adinaren arabera banatuko dira taldeak. Interesatuak 948 637145 (Gaizka) edo 948 637855 (Gotzone) telefonoetara deitu behar du. Bertzenaz, larunbatean zortzi, irailaren 30ean, goizeko 11etan Tantarumairu ikastolan eginen den saiora ager dadila.

Sendabelarren tailerra

Sendabelarren tailerra antolatu du bertze urte batez Lesakako Herri Eskolak, Udalaren laguntzaz. Urtero bezala, Laura Gumindo izanen da irakaslea eta lau orduko 15 saio izanen dituzte larunbat goizetan. Izarra okindegian izen emateko epea irailaren 20an akaituko da eta horretarako 10.000 pezeta ordaindu behar dira. Tailerra gaztekeraz eginen da eta saio teoriko eta praktikokoak izanen ditu.

Euskara ikastaroak
Bortzirietako IKA



Diego Adla argentinarra garaile Beti Gazte antolatutako Nazioarteko VII. Xake Irekian

Orain bi urte bezala, Diego Adla argentinarra suertatu da garaile Beti Gazte elkarteak zazpigarren urtez antolatutako xake irekian. Ehun partehartzailer izan ziren irailaren 2an udal pilotalekuan, aitzineko urteetan baino gutxiago. Dena den, kalidade oneko lehiaketa suertatu zen. Ilaki Izeta maisu handia izan zen bigarrena eta iazko irabazlea, Unai Garbisu, bosgarrena bertzerik ez zen izan. Xabi Iribarren izan zen herritarren artean onena (argazkiaren ezker aldean).

Argazkia: Aitor

euskaltegiak euskara ikasi edo hobetzeko 2000-2001 ikasturteko matrikulazio epea ireki du. Maila guztiak eta EGA emanen dira, nahiz den ordutegian. Izena emateko 948 637796 telefonora deitu behar da irailaren 29a baino lehen.

Oihan enkantea

Herriko Etxeak Elo-segi, Domiko eta Errenga inguruetan dauden 7.463 pinu eta 3.857

alertze zuhaitzen aprobetxamendua enkante bidez salduko du. Pinuak 7.158 metro kubiko zur emanen dute eta alertzeak 1.026 metro kubiko. Haserako prezioa 57.796.500 pezetakoa da eta proposamenak irailaren 25eko eguerdiko ordu-bata baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.



Tomasito REKONDO

Partidaria

Kopako Harrian izandako istripuan hil zen Tomasito Rekondo

Kopako Harrian eskalada egiten ari zela izandako erori baten ondorioz hil zen Tomasito Rekondo Ferrero, 32 urteko mendizale gaztea abuztuaren hondaregunean. Seguratsun soka xehe zuen eta 30 bat metroko altueratik arildu zenean gertatu zen ezbeharra. Uste gabeko heriotzak samina ekarri du herrira, aski ezaguna baitzen Tomasito. Gurasoen okindegian lan egiten zuen eta sei arrebena anaia zen. Beti Gazte elkartearen mendi sailean federatua, mendira ateratzea zen bere zaletasunik handiena. Istripuaren egunean bertze hiru lagunekin zegoen. Kopako Harrian bertan hedatu zituzten Tomasitoren errautsak, ekitaldi hunkigarri batean.

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
© 948 63 78 26
Frain auzoa • LESKA

Lanchas
• Parketak • Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 948630735

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnos.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESKA

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behe
LESKA

ETXALAR

Uda akautu da: berriz ere klasera

Azken urteetako emaitzik onena lortu da usategietako postuen subastan

JOSEBA ETA NEREA

Uda akautu da eta horrekin batera hurrek ikasturte berria hasi dute. Landagaín eskolak irailaren 7an ireki zituen ateak oporren ondotik eta iaz baino zortzi ikasle guttiagorekin. Joan den urtean zeudenetatik hamalau joan badira ere, hauek dira aurtentorritako sei berriak: Gurutzen bordako Aiora Danboriena, Gilleneko Bordako Guanxi Dorronsoro, Leku Aringo Nerea Iparragirre, Bazterretxeako Joseba Irazoki, Saroiberriko Maren Willerding eta etxe bereko Helge Willerding (bigarren mailakoa). Irakasleen artean ere bada berriak: Luis Garcia (frantses irakaslea), Edurne Aranburu (ingelesekoa)

eta Joxean (soinketakoa), gainontzekoak lehenengo urtekoak dira.

Aurtengo subasta bero

Buruilaren 2an hasi zen aurtengo usategietako postuen subastak 8.028.164 pezeta lortu du aurtent. Lehenengo egunean bertan 4.336.000 lortu zen; hasieran motel samar joan bazen ere azkenean emaitza polita ikusi ahal izan zen subastan. Aste beteko epea izan zuten ehiztariek postuei sesta emateko. Lehenengo egunetan bi posturi bakarri jo zitzaizten sesta nahiz eta azkenean hamaka izan ziren sesteatuak. Buruilaren 13an izan zen azken subasta postu hauek behin betiko (aurtengo denboraldirako) adjudikatze-



Hemen daude eskolako ikasle guztiak. Batzuk kontent, besteak triste baina denak eskolan.

Argazkia: Joseba Olagarai

ko. Hagitz saio beroa bizitu zen udaletxeko batzar aretoan.

Correosen lokalaren moldatzea

Postari berria dugunez geroztik, Correos bulegorik gabe dago Etxalarren. Hori dela eta, Udalak Komisariaren auzpian dagoen lokal utzi zion. Honen egoera ez zen hagitz egokia, aitzinetik eman zitzaien erabilerraren az-tarnak zeudelako. Urtea pasa eta gero lokal ho-

rren egokitze lanak hartu ditu bere gain Correosek. Hezetasuna kendu eta paretak bertutuko dituzte.

Antsolokueta eta Urritzokietako bestak

Urtero bezala, bi auzotako bestak izan ditugu irailean. Irailaren lehenengo igandean Antsolokuetakoa eta 17an Urritzokietakoa. Antsolokuetakoa auzotarrak haragi erretzaileek egindako gosariarekin hasi zuten eguna.

Ondotik, 75 pertsona inguru bildu zituen bazkaria izan zen eta arratsalde erdirarte iraun zuen bestak Joseba eta Nagore trikitilarien laguntzaz. Eguna ongi akautzeko afaria izan zute. Urritzokietan, berriz, goizeko mezarekin hasi zuten eguna, ondotik bazkari eder bati tokia uzteko. Berriz ere Joseba eta Nagore trikitilarien esku egon zen arratsaldeko musika eta azkenean afari batekin eman zioten bukaera egunari.

Amarrenda
Bittina 41 • 948 637516 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

J. RAMOS
Zolak akutzilatu eta barnizatzen ditut
© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

TXIRULA
loredenda
Albistur, 39-K
• 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haitzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittina, 45 • 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

Irailaren 6an hasi zen eskolan ikasturte berria

Sei lagun aurkeztu dira Arantza eta Igantziko idazkari lanposturako

OSKAR TXOPERENA

Irailaren 6an, udako nagikeri guztiak alde batera utzita, ikasturte berriari ekin zioten igantziko haurrek. Egia da gero eta lehenago hasten direla ikasturteak eta beranduago akautu, baina haurrek tartean gero eta egun libre gehiago badituztela ere erran behar da. Herri tiki gehienetan bezalaxe, irakasle goaren erdi baino gehiago berria dugu aurtenera: Alex Sasiain izan da 2. zikloaren -3, eta 4. mailen- arduraduna. Arantza Arantzastiren esku egonen da 1. zikloa -1. eta 2. mailak-. Haur Hezkuntzaren laguntzaile lanak

Marta de Miguelek egingen ditu eta gorputz heziketarenak, berriz, Jozean Ortigak. Ana Eratsun eta Ana Jose Irigoien dira jarraitzen duten irakasleak, bata 3. zikloaren ardura dauka eta berteak Haur Hezkuntza eta eskolaren zuzendaritzarena. Zortea eta pazientza izan dezatela desiatzen diegu, biak beharrezkoak izaten baitira horrelako lanetan.

Idazkari lanpostua

Orain bi urte Isabel Akerretak lana utzi zuenetik M^o Jose Larraiotz urroztarrak bete du Arantza eta Igantziko Herrikoetxeetako lanpostua. Uda hasieran,



Roberto Valcarlos nagusi mendi bizikleta ibilaldian

Irailaren bigarren igandean, ohitura bihurtu denez, txirindulariz bete zitzaigun herria. Eta bete diogunean ongi diogu, 134 izan baitziren izena eman zutenak X. izan den aurtengo Mendi-bizikleta Ibilaldian, aintzineko urtetako kopuruak aisa gaindituz. Eguraldi ederra izan zen partaidetzaren arrazoietako bat, dudarik ez dago, goiz-goizetik gogotik jo baitzuen eguzkiak, haizego epelarekin batera. Roberto Valcarlos iruñearra, iazko garailea, izan zen aurtengoan ere helmugako marra zapaltzen lehendabizikoa. Ordu bete pasatuxea behar izan zuen bi itzuliak osatzeko. Bere ondotik segituan ailegatu zen Xabier Akerreta gazte zizurtarra eta hirugarren Jose Lorenzo Esteban atarrabiarra. Igantziarrei dagokionez, berriz, Joxe Mari Goia bosgarren izan zela aipatu behar. Gaikeko mailetan ere ederki ibilatako herritarrek badaude: Unai eta Ederne Huizi eta Mikel Antxordoki garaile suertatu ziren euren kategorietan. Postu politak lortutako bertze batzuk badira, baina ezin hemen denak aipatu.

Arg.: Oskar Txoperena

egoera behin-behinekoa zenez, lanpostua betetzeko deialdia atera zuten bi Herrikoetxeek. Deialdaren epea irailla-

ren 4an akautu zen eta 6 lagun izan dira izena eman dutenak. Zerrendaren publikazioa eta bertze zenbait betebe-

har luzeren ondotik, udazken akabila aldera dira egitekoak idazkari berria aukeratzeko probak.

INTERVIDE
Bideo Profesional erreportaiak • Ezkontz erreportaiak
Tel: 948.599.055

PATXIKU garraio eskabazioak
Tel: 948.599.055

IGANTZIKO HERRIKO ETXEA
ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA
Igantziko Udalak, 2000ko abuztuaren 11n egindako bilera, hasiera batez onetsi zuen Igantziko Arau Subsidiarioetan 1. poligonoko 154 lurzailen zoru ez urbanizagarrian sartua dagoen zatia hiri zoru egiteko aldaketa, Vidal Etxarte jaunek sustatua. Halaber, espedientea hilabete batez jendaurrean jarriko da, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita interesatuek aztertu eta bidetzatzen jutzen dituzten alegazioak egin ditzaten.
Igantzi, 2000ko abuztuaren 11n
Eduardo MIGUELENA LEGASA

IGANTZIKO HERRIKO ETXEA
1999ko EKITALDIKO KONTUEN ONARPENA
Igantziko Udalak, 2000ko abuztuaren 11n egindako bilera, 1999ko kontuen espedientea hasiera batean onetsia erabaki zuen. Espedientea jendaurrean hamabortz egunez egonen da, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita interesatuek aztertu eta erriklamazioak egin ditzaten, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.
Igantzi, 2000ko abuztuaren 11n
Eduardo MIGUELENA LEGASA

ARANTZA

Herrialde pobreek duten zorra barkatzea eskatu du Udalak

Elizan moldaketa batzuk egiteko 7.125.000 pezetako aurrekontua izanen da

ELIXABET ETA GARBIÑE

Hegoaldeko herrialdeek Iparaldeko herrialdeekin duten kanpo zorra da, bertzeak bertze, herrialde hauek duten arazorik handiena eta beraien garapena mugatzen dutena. Zor hauen ordainketak sortzen duten interesek herrialde hauetako oinarritzko beharren garapena eza ekartzen dute. Joan den martxoaren 12an, estatu osoan egin zen kanpainaren barnean, herritarren iritzia eskatzen zuen kontsulta egin zen, herritar gehienak zor hau kitzaren alde azaldu zirelarik. Kontsulta honetan bizpahiru galderaren egiten ziren, hala no-

la, Espainiako Gobernuarekin herrialde pobreek duten zorra barkatzea, diru hori herrialde hauetako garapenerako zuzentzea eta auzitegiek herrialde aberatsen kontuak eta hauen aberastasunen berri ikertzea. Hau dena, kanpo zorra kentzearen aldeko herri taldeak irailaren San Herriko Etxeko batzarrean aurkeztutako mozioan ageri da eta mozio hau onartu zen.

Eliza moldatzeko familia bakoitzeko bortz mila duro

Elizan berrikuntza batzuk egiteko asmoa dagoela jakinarazi zaie herritarrei. Lan hauen artean, harri pikatua

hondarrarekin garbitu eta lehengo leiho eta ate inguruetan harri pikatua paratuko da. Burutuko diren lanen aurrekontua Felix Apeztexearekin egindua, 7.125.000 pezetakoa da. Aurrekontu hau, famili bakoitzeko 25.000 pezeta heldu da eta lan hauek datorren urtean egiteko intenzioa dago. Orain arte, elizan moldaketa aunitz egin dira eta jendearen erantzuna, laguntzeko orduan, ezin hobea izan da beti. Ea hurrengoan ere diru biltzea honela gertatzen den.

Arkupeak elkartekoak Donostiara

Arkupeak elkarteak,



Harri pikatua legarrarekin garbituko da eta ate eta leiho inguruetan harri pikatua paratuko da.

Artibekoa

irailaren 28rako Donostiara ateraldia antolatuko du. Kursoal eraikuntza famatua bisitatuko da, Moneoren kuboekin batera, baita artisau dendak eta museoren bat ere.

Eguraldi polita iza-

nez gero, Igeldora joiaren dira eta eguerdian, bazkaria Ondarreta tenisa jaietan egingen da. Bazkalondoa Modestorekin dantzaldia izanen dute. Ateraldiaren prezioa 3.500 pezetakoa izanen da.

ANTZUZELA S.L.

Rugby errep. - BERA - Tel. 948 63 03 17

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEN

| | |
|-------------|-----------|
| Antzuzela | Turkianak |
| Angulak | Elizateak |
| Casa urteak | Melizak |
| Lekak | Zakak |
| Arak | Hilakak |
| Arakak | Marmalak |
| Plakak | |

Wapenak / Estampak / Mone / Zuzenak / Zuzenak / Zuzenak

ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

ALBERGIA JATETXEA

ATERPE

948 634179
ARANTZA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina 10 minututan zuk nahi duzun kolorean Profesionalentzat prezio borozia

Eztegara 19 • 948 63 02 40 • BERA

MALERREKA

Urrozko Sanmiguel bestak irailaren 28tik urriaren 2ra

Mindegia eta Larretxea, Arrospide eta Olasagastiren kontra ariko dira

Ortzeguna, irailak 28
Arratsaldeko 8etan altxaleroak eta ezkilak beste hasiera emanez. **8,30etan** zopak Herriko Ostatuan. **12etatik aurrera**, dantzaldia JOXE ANJEL akordiolariarekin.

Ortzirala, irailak 29
San Migel Eguna
11,30etan Meza Nagusia, herriko zaindariaren ohorean. **1etan** hamaketakoa Herriko Ostatuan. **5etan** Gorritiren animalien erakusketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JALISCO BAND taldearen eskutik.

Larunbata, irailak 30
11,30etan mus txapelketa. **12etan** pilota partiduak. **5etan** haur jokoak eta txokolatada. **Arratsaldez** dantzaldia MINDEGIA anai-arebekin. **Gauez** dantzaldia JALISCO BAND taldearekin.

Igandea, urriak 1
Goiz eta arratsaldez haur parkea. **1etan** aizkora apostua; Mindegia eta



Garai batean herritarren arteko aizkora apostuak egiten ziren. Aurten, igandean Mindegia eta Larretxea eta Arrospide eta Olasagastiren arteko apostua ikusteko modua izanen da.

Larretxea, Arrospide eta Olasagastiren aurka. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MIKEL eta AINARAREKIN.

Astelehena, urriak 2
2etan herri bazkaria. Bertsolariak: Xabier AMURITZA eta Anjel Mari PENAGARIKANO. **Arratsal-**

dez eta gauez dantzaldia MIKEL eta AINARAREKIN. **Gauean** eta herriko plaza: zingar jatea.

Ikastaro batzuk antolatu ditu Ezpelura Emakume taldeak

Malerrekako Ezpelura Emakume taldeak udazken honetan eginen dituen ikastaroen berri eman du. Tapizgintza, artisautza, josketa eta altzarien zaharberritze ikastaroak ematen dituzte. Beti ere, egunak eta ordutegia, izena ematen duten emakumeen arabera jarriko dira. Ikastaroak urriari hasiko dira eta izen ematea Doneztebeko Nafarroako Kutzaren bulegoan egin behar dalehenbailehen.

Tapizgintza eta zaharberritze ikastaroen truke 12.000 pezeta ordaindu beharko dute Ezpelurako bazkideek eta 15.000 bazkide ez direnek. Artisautza eta josketa ikastaroak merkeagoak izanen dira. Bazkideek 9.000 pezeta ordainduko dute eta bazkide ez direnek 12.000 pezeta. Ikastaro guzkiek 60 bat orduko iraupena izanen dute, udazken eta neguko hila beteetan banatuak. Eraberean, aipatu behar da Nafarroako Kutzako Megaplan, Club 10, Club 10 Basic eta Urrezko Adina kontuen jabeek bertze mila pezeta deskontua izanen dutela.

GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petanekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

BELARRA

OSTATUA - JATEXEA
 Aratzio karrika • DONEZTEBE
 Tfnoa: 948 45 03 06


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
 948 451 541
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE


MENGHINI AKORDEOIAK
 Angel Manuel Belio
 AKORDEOIAK • AKORDEOIAK • AKORDEOIAK • AKORDEOIAK
 Mireia gata, 3000300 are opta osatu
DOMINENA Etxea • San Andres Karrika, 40 NARBARTE
 • 943 - 61 50 55 • 657 772 633

DONEZTEBE

Besta ttikiak aste hondar honetan ospatuko dira

Igande arratsaldean kantaldia eskainiko dute Txomin Artolak eta Jose Sanchez kubatarrak

TTIPI-TTAPA

Ortziralean, irailak 22, hasi eta igandea bitarte luzatuko dira Doneztebeko besta ttikiak. Doneztebeko Udalak eta gazteek antolatuta dituzte ekitaldiak, ostatu batzuen laguntzaz. Ortziral arratsaldeko 8etan altxaferoa botako da San Luzia plazatik. Ondotik kalejira izanen da Beti-Alai txarangaren eskutik. Ohiturazko zopak emanen dira das-tatzera herriko jatetxe eta ostatu ezberdinetan. Gaueko 1etik 4etara «Baskoson I» Diskoteka

mugikor martxosoi izanen da.

Larunbat goizeko 10etan argi soinuak izanen dira Beti Alai txarangarekin. 11etan haurrendako kirolak Bear-Zanan eta bonba japoniarrek. Erraldoi eta buruhaundiak aterako dira. 1etan triki-poteoa abiatuko da Santa Luzia plazatik. 2,30etan herri bazkaria izanen da, trikitixak alaitua. Arratsaldeko 8etatik 10etara eta gaueko 1etatik 4etara dantzaldia izanen da Gorramendi 10 taldearekin.

Igandean ere, bez-



Udal kiroldedia irailaren 2an zabaldu zen ofizialki

Irailaren 2an egindako ekitaldi xumean zabaldu zen udal kiroldedia. Ekitaldian, udal agintari, arkitekto eta lanak egin dituen Mariezkurrena enpresako ordezkariekin batera, Jesus Laguna Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilaria eta Calixto Ayesa, Gizarte Ongizate departamentuko kontseilaria izan ziren. Jose Mari Zelaleta Doneztebeko apezak kiroldedia bedeinkatu zuen.

Argazkia: Aitor

peran bezalaxe, goizeko 10etan argi soinuak izanen dira. Beti-Alai txarangarekin batera herriko txistulariak ere ariko dira. 11etan Meza emanen da San Migel ermitan, Mendi abesbatzaren emanaldiarekin. 12,30etan, dantza erakustaldia izanen da

San Migel auzoan, dantzarien eskutik. Ondoren, erraldoiak eta buruhaundiak aterako dira. Arratsaldeko 8etan, haurrentzako Gorritiren animalien erakustaldia izanen da Bear-Zana pitlolekuen eta ondotik txokolatada eginen da. Doneztebeko besta

ttikiak behar bezala akitzeko, kantaldi ederra aditzeko modua izanen da Santa Luzia plazan, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Txomin Artolarekin batera, Nova Trova Cubanaren ordezkaria den Jose Sanchez kubatarra ariko da kantari.

ITUREN

Joaldunen Eguna eginen da larunbat honetan

Eguerdian aizkora apostua eta bertsolariak izanen dira

IBAN ISASI

Larunbat honetan, irailak 23, ospatuko da Ibintza kultur taldeak antolatutako Joaldunen Eguna. Ekitaldiak goizeko 10etan hasiko dira, joaldunak eta herriko trikitilariak Ameztian baserri baserri eginen duten ibilaldiare-

kin. Eguerdian joaldunak eta trikitilariak herri jaitsiko dira. Ordu bata aldera aizkora proben ikuskizuna izanen da plazan, Esteban Saralegi, Maika Ariztegi eta Kristina Saralegiren eskutik. Ondotik Xebaxtian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak ariko dira.

3etan herri bazkaria eginen da Herriko Etxeko sabaian, honako menu honekin: Garbantzuak eta mailarra, bakailua, txuleta, tarte eta txanpaina, kafea, kopa eta puna. Bazkarirako txartelak Iturengo ostatu eta dendetan eros daitezke 3.500 pezetatan. Bazkal ondotik, arra-



Joaldunak izanen dira berriz ere protagonista larunbat honetan.

Artetikokoa

tsaldez eta gauez dantzaldia izanen da Ainara,

Arkaitz eta Leireren eskutik.

GOIZUETA-ARANO

Aste honetan izena eman behar du etxera gasa sartu nahi duenak

Gero askoz garestiago izanen dela diote Repsolekoek

ESTEBAN AROTZENA

Herria gasifikatzearen gaia pil-pilean dagoen egun hauetan, irailaren 9an egin zen batzarraz geroztik batzez ere. Jendetza handia bildu zen egun horretan eta proiektua errentagarria izateko herritar gehienek baiezkoa eman behar diotela bal-

din badio Repsolek, dagoen giroa somaturik ez dirudi lanak aurrera eramateko horrelako arazorik izanen denik.

REPSOLEKO TEKNIKOAK HERRIKO ETXEAN

Kontratua sinatu aurretik herritarrek banan banako informazioa jasoz dezaaten, aste osoan, hilaren 18tik 22ra ale-



Arkaitz Garcia Olo Sidneyra

Arkaitz Garcia Olo, hamazazpi urteko igerilariak urriaren 18tik 22ra Australiako Sidney hirian egingen diren Paralinpiadetan parte hartuko du. Azken bi urte hauetan estatuko eta Euskal Herriko hainbeste garaipen lortu ondoren, etorri zaio Arkaitzi aukera eder hau. Bi probetan igeri egingen du, gainera, 200 metro libreak eta 50 metroak bizkar etara, hain zuzen. Lehenengo modalitatean, 4 minutu 21 segundu eta 62 chuneko marka du mutil honek. Bestean, berriz, 50 segundu eta 98 chuneko.

gia, Herriko Etxean dande Repsoleko teknikoak, goizean 10etatik 2etara eta arratsaldean 4etatik 7etara. Hemen aurrerratu genezakeena

da, etxe batera gasa sartzek 157.000 pezeta balioko duela guztira. Epeka ordaindu omen liteke urte baten barruan. Dena den, sartzeko

kotan orain sartzea komeni omen da, lehenengo fase honetatik kanpo garestiagoa izanen baita, teknikoek diotenez.

ARESO

Hogeitabost umek hasi dute ikasturte berria

Astomela erreka bideratu eta alboetan paretak egingen da

JUANA MARI SAIZAR

Ikasturteari hasera eman zaio dagoeneko eta iazko kursoan baino ume bat gehiago dago aurten, 25 denetara.

Erreka bideratzea eta paretak egitea

Astomela errekan egingo dira lan hauek. Olaetxetik hasi era

Patxikuraino erreka bideratuko da eta paretak eraikiko dira. 5.100.000 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak eta aurrekontua 6 milioi terdikoa da. Azkeneko batzarrean onartu zen.

Autobus geltokiko aterpea

Autobus geltokiko



lazko ikasturtean baino ume bat gehiago dago aurten eskolan. Arbizbon

aterpea berritzen hasi dira. Lehengoa bota eta leku berean egingo dute. Ondean, telefono kabina egingo dute.

Alfonso Araujo idazkari berria

Idazkari berria, Alfonso Araujo irufarra, irailaren 1etik aurrera

lanean ari da, egun osoz eta jendearentzako harrera orduak 11etatik 2etara eta ostegunetan arratsaldean izango dira.

Igandea 24

4,30etan Artzai Zakur lehiaketa Meakaundiko zelaian.

Ortzeguna 28 Bezpera

Arratsaldeko 8etan Txupinazoa eta ezkil jotzea LARRAKAITZ txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik Kankailu eta Buruhaundiak ibiliko dira karrikaz karrika. Gero, peñen afaria. **12etan** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

Ortzirala 29 San Migel Eguna

10,30etan karrikaz karrika buelta herriko Txistulari eta dantzariekin. **11etan** Meza Nagusia herriko Abesbatzak kantatua. **12etan** soka dantza. **6etan** Igantziko Dantzarien emanaldia. **Arratsaldeko 8,30etatik 10etara** eta **12etatik aitzinera** dantzaldia IZOTZ taldearekin. Tarteetan Muxikoak.



Larunbat eta astelehenean betizuak izanen dira aurten.

Argazkiak:
Oskar
Txoperena

Larunbata 30

9etan gosaria Ziobi mendian. **9,30etan** Plater Tiraketa. **10etan** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin. **12etan** betizuak. **6etan** Herri Kiroalak: Bigarren mailako aikora apostua eta proba konbinatua. **8etan** Bertso Saioa: Mañukorta, Jon Maia, Xabier Legarreta

eta Amets Arzallus. **Arratsaldeko 12etatik aitzinera** dantzaldia MUSU TRUK taldearekin.

Igandea 1 Haurraren Eguna

Egun guzian haurrentzat jokoak eta gaztelu haizatuak izanen dira. **12etan** haurren arteko pilota partiduak (finala). **4etan** Buruhaundiak eta Kankai-

luak karrikaz karrika ibiliko dira. **5etan** berendua. **5,30etan** pilota partiduak: Agesta eta Martinez de Eulate, Apezetxea eta Navaroren kontra. Zubieta eta Irurieta, Irazoki eta Regiren kontra. **8etatik 10etara** eta **12etatik aitzinera** dantzaldia KRISTINA eta AMAIA taldearekin.

Astelehena 2

Ezkonduen Eguna **12etan** betizuak. **2etan** Herri Bazkaria Andoni EGANA eta Sebastian LIZASOrekin. LARRAKAITZ txangak animatua. **9etatik 10etara** eta **12etatik aitzinera** dantzaldia EGAN taldearekin.

IRUGLAS, S.L.
GRABADOS
MARMOLAK ETA GRANITOAK

- *Pileta artea*
- *Era guzietako letrak eta marrazkiak grabatzen dira*
- *Sukalde eta bainurako entzimerak*
- *Tspiluak, kristalak eta zeramika grabatuak*



Fraineko bidea
☎ 948 637 412
IGANTZI



BERRIZKUN S.A.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadoreak

Igantzioko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS S.A.

Igantzioko Bentak
© 948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaiaik.
- Mantenu rodilloak.



**SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK**

*Klase guzietako
aseguruak
herrian
bertan!*

Oskar Txoperena • Baratzondo 1 • IGANTZI
Tel.Faxa: 948 637236 • Mug.: 610 507579

**Herri bazkarian
berri ere gozatzeko
aukera izanen da,
bai lagunartean, bai
Lizaso eta Egaña
bertsolariekin.**

Argazkiak: Oskar Txoperena

JOSE AGERRE

PINTURA LANAK



- Fatxadak garbitu eta pintatu
- Kanpo eta barneko pinturak
- Papera lanak
- Barnizatzeak
- Gotelé
- Moketa eta zintasol

© 610 22 15 28 • 948 637957 • IGANTZIKO BENTAK

Besta ederrak pasa!



Tel. 948 637 460

01770 Lesaka (NAVARRA)

BI-BIDE

ostatu
janaridenda

BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU

Tfnoa: 948 63 72 78
IGANTZI



JATETXEA



Besta zorionsuak opa dizkizuegu

Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI

IGANTZI

OSTATUA • JATETXEA • HOSTALA

IGANTZI ostatu-jatetxe-hostalak
festa zorionsu batzuk opa dizkizue

Karrika Nagusia • Telefonoa: 948 63 75 02



IRUDI

*Dizionario eta puntillatzen tailerra
Tailer de anisela y puntillatzen*

**M T GUZTIET K
IN IM KI K**

SI X EL K F < I K
ENK N Z U N I EN K ENKU E N Z I K
E EK I K L S HK Z I K

S nm l t b st n
l k ust n b h n

3 15 21

E NEzt r 2 n/TI

👉 **helbide berria** 👉 **enpresa berria** 👉 **helbide berria** 👉

👉 **helbide berria**

👉 **enpresa berria**

👉 **helbide berria**

👉 **enpresa berria**

👉

👉 **helbide berria** 👉 **enpresa berria** 👉 **helbide berria** 👉

👉 **enpresa berria**

👉 **helbide berria**

👉 **enpresa berria**

👉 **helbide berria**

👉

RADIO BIDASOA
Eztegara • BERA

LEHEN

BORTZIRI
Iturlandeta 1 • BERA

ORAIN

expert

BORTZIRIAK, S.L.

948 631 091 • 948 630377
Bidasoa, 45 • BERA

KONPONKETA ETA SALMENTA

- ◆ TB, BIDEO, HI-FI
- ◆ ELEKTROGAILUAK, haundiak eta txikiak
- ◆ TELEFONOAK, sakelekoak, etxeakoak
- ◆ ANTENAK
- ◆ SUKALDE MOBLEAK

**INAUGURAZIOKO
ESKAINTZA BEREZIA**

BOSCH 2012 Aspiradorea
(1400 W)

12.900 Pta.



Igantzikoko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

Besta Zoriontsuak!

NAFARROAKO  KUTXA



*Igantzikoko Udalak besta onak opa dizkizue
Igantziar eta bisitari guziei*

Udaletxeko bigarren solairua moldatuko da aurten

Arkiskil eta Erreka auzoetako ur-hornidura sarea ere eraikiko da

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak hiru inbertsio eta obra egiteko Udalak eskatu zituen dirulaguntzak onartu ditu, 2000. urteko toki azpiegitura obren planaren barnean. Alde batetik zaborontzi berdeak erosi dira. Horretarako onartutako inbertsioa 1,5 milioikoa da. Bestetik bi obra egingen dira. Alde batetik, Udaletxeko bigarren solairuko erreformen solairuko erreforma egingen da (bulegoak eta artxiboa). Honetarako onartutako inbertsioa 21 milioikoa da. Bestetik, Arkiskil-Erreka auzoetako ur-hornidura sarea eraikiko da (herriko ur-biltegia eta Joanaborda artean dauden baserrientzat). Lan honetarako Nafar Gobernuak onartutako inbertsioa 17,3 milioikoa da. Partikularrek inbertsioaren zati bat ordaindu beharko dute eta gainerantzekoa Udalak. Bi obra hauen proiektzio eta zuzenda-

ritza Karlos Sagastibelza Villanueva Arkitekto Teknikoari eman diote.

Bestalde, Kirol Instalazioen Plan Zuzendarian ezarritakoan oinarrituz, Nafarroako Kirol eta Gazteri Institutuak kaleratu berri duen kirol instalazioetan inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdia dela eta, Udalak pilotalekuan erreformak egiteko 16,2 milioiko inbertsioaren dirulaguntza eskatu dute. Dirulaguntza lortuz gero aldagelak berritu eta teilatua eta paretak moldatuko lirake.

Ikasturte berria Euskaltegian ere

Leitzako IKA euskaltegiak ikasturte berriko eskaintzak kaleratu berri ditu. Ohiko eskaintzetaz gain (Euskaraz ez dakitenentzako ikastaroak, alfabetatze ikastaroak eta EGA titulua prestatzeko ikastaroak) aurten eskaintza bereziak egin dituzte. Merkatarientzako ikastaroak, urritik mar-



Urtxintxa taldeko txirrindulari gazteek denboraldi bikaina egin dute

Oso denboraldi hona egiten ari dira Aptiva ekipoko txirrindulariak. Jubeniletan, Iñigo Sagastibelza nabarmendu da eta ikadeteetan berriz Mikel Nieve eta Jose Mari Sestorain. Sestorainek orain berriro Bianako Udala Trofeoa irabazi zuen. Goiko argazkian, Gorka Bermejo, Xabier Ariztimuño, Iñigo Sagastibelza, Iker Baraibar, Eneko Aizagirre eta Iñigo Irazoki agertzen dira, Jose Luis Larralde prestatzailearekin.



txora astean 2 egunetan 2 orduz emanen direnak; gurasoentzako ikastaro motzak, urritik abendura, astean 2 egunetan 2 orduz emanen direnak eta «Euskaraz zuen» ikastaroa, Euskaltzaindiko azken erabakiak ikasteko eta erderakadak zuzentzeko, esakerak eta hiztegia lantzeko, etab. Azken ikas-

taro hau ilbeltzetik apirilera, astean bi egunetan 2 orduz izanen da. Matrikulazio epea irailaren 29an bukatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 948 61 07 76 telefonora deitu dezakezue.

Kontribuzioak ordaintzea

Udalak kontribuzio-

aren ordain-agiriak igorri ditu. Aurten 32,4 milioi bilduko ditu hiri-kontribuzioarengatik (eraikuntzak), 2 milioi landa-kontribuzioarengatik (lurrak) eta 247.000 pzta. komunalen probetxamendurengatik kobratzen den kanonaren bidez. Ordaintzeko epea urriaren 31 arte da.

Helduen osasuna zaintzeko ekitaldiak egingen dira Leitzaldeko Osasun Etxeetan

Pertsona helduen gaitzei aurre hartu eta osasunaren aldeko aktibitateak bultzatzeko asmoarekin Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako osasun-etxeek ekitaldi berri bateri hasiera eman diote. Nafarroako Osasunbideak eratu duen Programa baten barnean sartzen da ekitaldi hau eta honako ho-

netan datza: urtero 24 eta 40 urte betetzen dituzten gizon-emakumei osasun-etxera deituko zaie txanda emanaz eta han zehaztasun siple batzuk hartuko zaizkie (tentsioa, pisua, txertoak...) eta hemendik hamar urtera berriro deituko zaie. Honela helduen osasuna zaintzeko eta beren joera ezagutzeko aukera izango da.

gaztelu scl
iturgintza

kalefakzioa saneamendua gasa
948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Anizko bestak irailaren 30etik urriaren 3a artio

Haur eta Baserritarren Egunean V. Golf txapelketa jokatu da

Launbete, irailak 30
Bezpera Egune
 8etan Altzaferuak beste hasiera emanez. 12,30etik 5,30ak arte dantzaldia. Ondotik zinger jatea.
Igandia, urriak 1
Arrosarioko Ama Birjinaren egune
 11etan Doneztebeko txistularien kalejira. 12etan Meza Nausie. 1etan otordue. 5,30etan herri kirolak. 6,30etan pilota partidek. Ondotik dantzaldia.
Astelehena, urriak 2
Haur eta Baserritarren Egune
 9,30etan Baztango V. Golf txapelketa. 10,30etan pilota partidek. 12etan mus txapelketa. 2etan paellaz asetzeko aukera (Maitane eta Mainerrek alaitua). 4etan mahaijokoak. 6etan haur jokoak eta txokolata jatea. 9etan herri afaria. Ondotik dantzaldia Joxe Angelekin. Akitzeko, Anizko V. Putzipartol Laixterketa.
Astierdia, urriak 3
Adiskidetasun Egune
 12etan Pilota partiden fi-



1977ko urriaren 3an egindako argazkian, sokatira saioa. Ezkerreko aldean Gabriel, Antton Mari, Mariano, Tomax eta Joxe Antonio. Eskuineko aldean Martin, Karlos, ?, Xalbador eta Joxe Joakin. Epaila Iana Migeltxok bete zuen. Aurten ere izanen da herriko ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira saiorik.

nalak. 1etan mus txapelketaren finala. 2,30etan zikiro jafia Joxe Angelek alaitue. Ondotik herriko bertsolarie(k). 5etan sokatira, ezkonduak ezkongabeen kontra. 9etan zinger jafia. 12etan Gixajua ni, beste akabaila emanez.

Hiru irakasle berri izanen ditu Udal Musika Eskolak

Baztango Udal Musika Eskolak musa tresna ezberdinak ikasteko aukera zabalduta du aurten, hiru irakasle berriekin. Aurren trikulan izandako eskaria ikusiz, zehazkariak (7 ikasle), txistu (6 ikasle) eta saxofoi irakasleak kontratatu dituzte. Orain arte saxofoi klaseak klarinete irakaslearen ematen zituen, baina ikasleek hartutako maila ikusiz, titulazio badiagoko irakasle baten dutela erabaki zuten.

Ez da hori ahalak bakarrik izanen Musika Eskolan. Didaktika irakasle bakoitzak metodo berriak, partiturak eta sako baliabideak eskuratzeko hogeita mila pezetan jasoko dira (200.000 pezetan dituzte). Eraberean, lekutu elektrikoak eta saxofoi baxua erosi dira, bakoitza 250.000 pezetan. Azken lau urtetan irakasleen soldatak igotzerarik izan ez dutenez, IPCaren igoera gehitu ere erabaki da. Zuzendaria eta idazkaria ere kontratatu dira.

Bertzalde, behin solairuan ura sartu zela eta, pisu hori mugatu ere eskatu da.

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
 Baserritarren zerbitzurat
 Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375
 Ondoki Auzoa • ARIZKUN

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
 Iturriotz Auzoa • T: 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI
 Santiago 88, T: 948 580939
 ELIZONDO

MERKEALDIAK

UDA KO ARROPA eta OIHALETAN

SPARK INGLÉS
 akademia

ANIMATZAN ERROKABLE TITULAKIA
 ADIN ETA ORDUZEGI GUTTIAK
100% APROBATUAK
KLASE INFORMATIZATUAK

Elizondoko 3/23-arte irekia
 PAULARENA 35 1º A
Elizondo

SOULE
Pilota artea
 T: 948 453444 • 629 69920
 ARIZKUN

Eskisaroi
jatetxea
 Jaime Urdia, T: 948 580 911
 ELIZONDO

BAZTAN

Iparraldeko mugarriak aztertu dituzte udal ordezkariak

50 kilometroko muga du herriak Lapurdi eta Baxenafarroarekin

TTIPI-TTAPA

Urtero egiten duten gisara, Baztango udal ordezkariak eta Iparraldean mugakide diren herrietako agintariak mugarriak aztertu zituzten iraile hasieran. Baztanek 50 kilometro inguruko mugak ditu Lapurdiko Sara, Senpere, Ainhoa eta Ezpeletarekin eta Baxenafarroako Itxasu, Bidarni, Banka, Aldude eta Urepelekin. 1856an Frantzia eta Espainiako mugak aztertzeke hitzarmena betetzen dute, gisa honetarat, udal agintariak.

Hautzaindegi pribatua Elizondon

Kristina Gofü leka-roztarrak eta Noemi Martiarena elizondarrak hartu dute Elizondon hautzaindegi pribatua kudeatzeko ardura. Garai bateko medikuaren etxea zegoen lokal munizipala hautzaindegi gisara erabiltzeko bai-mena eman du Udalak. Kristina eta Noemik aurkeztutako eskaintza izan zen onena.

Erdi Aroko merkatua Elizondon

Santiago Bideko merkatua izan zen irai-



Karrika antzerkia, eskulanak eta bertze halbat gauza ikusgai izan ziren Santiago Bidearen Azokan.

Argazkia: Ondikol

laren 9 eta 10ean Elizondoko Foru Plazan. Jende aunitz bildu zen, horietatik gehienak oporretako azken egunak aprobetsatzen ari ziren turistak, bero ikaragarriari aurre eginez.

Elizondoko saihebidia

Balleko Udalak, haserako onespina eman

dio N-121-B errepidean egin gogo den Elizondoko saihebideari. Ekainaren 23ko batzarraren onartu bazen ere, Nafarroako Boletinean ez da irailaren 8a bitartean argitaratu. Honela, urriaren 8a bitarteko epea izanen dute interesatuek proiektua begiratu eta nahi dituzten alegazioak aurkezteko.

flash

Xauli Gazte Informazio Bulegoak

egoitza lekuz aldatu du. Orain, Elizondoko Pedro Axular karrikan 2. zenbakian dago, herri liburategiaren ondoan. Telefono-fax zenbakiak (948 581458) eta e-posta helbidea (ize-ta@cin.es) lehengo berberak dira.

Osasunakoak Oronozen

Irailaren 14an, Osasuna futbol taldeko zuzendaritza batzordeko kideak eta 7-8 jokalarik Oronozen izan ziren. Urgainen omenaldia eskaini zitzaizten, joan den urtean tortutako igotza ospatzeko. Bazkaria eta bertsoak aditu ziren. Jokalariak, igo aitzinetik bertan pasatu zuten asteburua gogoratu zuten.

Elizondoko Musika Bandak 300.000 pezetako dirulaguntza jaso du Udaletik. Nafarroako Gobernuan elkartearegistratzeagatik.



Lourdes Arretxearen erakusketa Arizkunenean

Urriaren 4a artio zabalik izanen da Elizondoko Arizkunenean Lourdes Arretxea mexikarraren (gurasoak eta senarra buztandarrak ditu) «Bi mundu artean» margo erakusketa. Arratsaldeko 6.30etatik 9etara zabalduko dira Kultur Etxearen ateak. Izenburuak dioen bezala, Mexiko eta Euskal Herriko irudiak ageri dira erakusketan.



Aukera paregabeari

ORDUTEGI ETA MAILA EZBERDINAK

INFORMA ZAITEZ SUINKI EUSKALTEGIA
 Jaime Urutia 16, ELIZONDO
 Tfnoa: 948 45 24 71

dek

izena eman

SARA

Giro eta eguraldi ederrarekin joan dira urte honetako bestak

Gaztetxe arteko futbol txapelketa larunbatean jokatuko da

ANA MARI ETA FRED

Gan den urtean bezala, aski denbora ederra izan dugu aurtengo bestetan, bereziki asteburuan gaitzeko berorak egin ditu eta, ondorioz, ostalariek ez dute hatsa hartzeko astirik ere izan. Ekitaldi gehienak normaltasunez iragan dira eta betiko arrakasta bildu dute, bai larunbateko kontzertuak, igandeko ikusgarriak, ikastolako zikeroak, asteazkenekoazienda primak, bai eta gazteek moldatu auto bereziek ere.

Aurten jatetxe berri bat ere bagenuen, Mayiren etxe «historikoa» gustu ainitzekin antolatua izan baita, eta oturuntz goxoen dastatzeko manera bazen han ere. Usaian bezala, besta sano eta herrikoiak ospatu ditugu, gurekin ez zirenak ahantzi gabe. Hala nola Bixente Garzia saratar preso politikoaren aldeko afitxa eta pegatina aintz ikus zitezkeen Sarako karriketan. Ea heldu den urtean horrelakoan beha-



Dantzariek ere eskaini daukute beraien saio ikusgarria Sarako bestetan.

Argazkia: Aña Mari

rik ez den, eta bestak den-denen artean ospatzen ditugun.

Ikasturte hasiera

Buruilaren 5ean, asteartearrekin herriko hiru eskolek ateak zabaldu zituzten. San Josepe eskolak 70 haur biltzen ditu; zuzendaria Anne Fertin anderea da. Eskola publikoari doakion kopurua 110ekoa da; zuzendaritza berria da, aurten Aña Mari Curutchet baita eskola buru,

Paul Milhet saratarrek bere postua utzi baitu Sokoako eskolara joateko. Ikastolan ere aldaketak izan dire, Miren Haldi Miarrizteko ikastolara joan baita. Bere ordezkia Ainhoa Zelaia bermeotarra (Bizkaia) dugu. Joan den ikasturtean Hendaian zen irakasle. 15 haur ditu bere gelan.

Euskara ikastaroak AEKren eskutik

Arten ere euskara

ikasi edo hobetu nahi duten saratarrek parada ezin hobea izanen dute, AEKk Saran berean eskainiko dituen kurtsuoi esker. Klaseak urria hastapenean hasiko dira, eta sartze horren presatzeke, informazio bilkura bat izanen da buruilaren 27an, arratseko 8,30etan Denen Etxean. Bertzalde, edozoin xehetasun jakiteko edo izenen emateko 0559597609 zenbakirat deitzen ahal da.

Gaztetxe arteko futbol txapelketa larunbat huntan Sarako Animanian

Sarako Etxola Gaztetxeak, gaztetxeen arteko futbol txapelketa antolatzen du datorren buruilaren 23rako. Lehen partidak 9etan hasiko dira eta arnuek diotenez, talde bakoi-tzak zazpi jokalaria beharko ditu, hauen artean bederen neska bat izan beharko delarik.

Bertzalde, talde bakoi-tzak baloin bat, epaile bat eta txistu bat ekarri beharko du. Dutzak izanen dira guzientzat, baina norberak bere bazkaria etxetik ekarri beharko du.

Arratsean, Gaztetxean afaltzeko manera izanen da 100 libreren truke, eta kontzertu bat egin beharra da egunaren goxoki bururatzeko.

Errugbi taldeak jendea eskas du

Agorrilaren lehen egunetan, errugbilariek entrenamenduak hasi zituzten. Kopuruaren aldetik egoera larrian dire, jendea eskas baita. Oraindikan, ez dute segurtatua bi talde egiten ahalko dituzten, bertze urtetan bezala. Dena den, sasoina urriaren lehenean hasi behar dute Azkainen kontra arituz. Animaniako zelaian.

Derbi bero baten mentura, dudarik gabe!

Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa **Kidetza berri bat!**
7. Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
MARIAN ETA VERONIQUE
64310 SARA • Tel. 05 59 54 25 18

Ibarrungo San Mikel bestak buruilaren 29tik urriaren 2ra

Arrats guzietan oturuntzak izanen dira

FRANCK DOLOSOR

Irailaren 29an, ortziralarekin hasi eta urriaren 2a, astelehena, bi parte eginen dira Ibarrungo auzoko bestak. Egunero egunero animazio ederra izanen da Ibarrungo karriketan, San Mikel besten kari. Arrats oroz oturuntzak eta kantaldiak izanen dira eta pilota partidak ere izanen dira igande arratsaldean.

Ortziralean, arratseko Setan besten idekitzea izanen da eta 9etan zerri ttikiaren jatea Triku-Jairekin.

Larunbat eguerdian pala antxa txapelketaren finalak jokatuko dira. Setan hirugarren mailako finala jokatu da, oren bat berantago bigarren mailakoa eta Setan lehen mailakoa. Zintzurbustitza ere izanen da pilota partidak akitzen direnean. Arratseko 9etan oturuntza eginen da Eskola ostatuan. 9,30etan kontzertua eskainiko du Kontuz taldeak eta 10,30etan Fabulous Trobadors taldearekin izanen da musika. Azkenik, gauerditik aitzinera dantzaldai eskainiko du Kukumiku taldeak.

Igande goizeko 10,30etan San Mikeleko meza emanen da. 11,30etan aperitifa eta kontzertua Emak-Hor taldeak alaiturik. Arratsaldeko 4etan, esku huskako pilota zoiñgehigoka jokatu da: Harrocarene eta Larretchea, Saint Paul eta



Garbi toki berritua inauguratu dute

Uztailaren 9an garbi toki berritua inauguratu zen herritar ainitzen aitzinera. Apezak bedeinkapena eman zion.

Argazkia: Studio de la Nivelle

Martiarenaren kontra. Setan kantaldia izanen da Jojo eta Ramuntxorekin eta 6,30etan Mutxiakoak. Arratseko 8etan atun jatea izanen da Battitte Daguerrerekin. Animazioa Andaluziako dantzekin. Dantzaldia Itzarolan taldearekin.

Astelehenean, azkenik, gazteek eskea eginen dute goizeko 9etatik aitzinera. 11etan pilota partida independentea. Setan fandango txapelketa eginen da eta 6etan kantaldia Kriolinak taldearekin. Arratseko 8etan bakailua saltza berdean jatea izanen da Bonneten. Bestak akitzeko, dantzaldia izanen da Beñat Elizondorekin.

Gogoratu behar da egunero txarangaren musika izanen dela karrikaz karrika.

882 ikasle hasi dira Senpereko eskola, ikastola eta lizeoetan

Buruil hastapen huntan, gazte eta erakasleak eskoletarat itzuli zaizkigu bakantza «laburregien» ondotik. Hiru eta hameka urte arteko 485 ikasle dabilta Senpereko lau eskolatan, hauetarik 227 eskulara edo osoki eskularaz ikasten dutelarik.

Arretxea kolegioak 180 gazte biltzen ditu eta aurten gela elebidunak zabaldu dituzte. Aldi huntan 40 berri sartu dira sei garrenerat eta hauetarik 9k sei oren dituzte historia-geografia euskaraz eta mintzaira bera ikasteko. Bosgarrenean bertze zortzi haurrek bi oren dituzte asteoroz.

Azkenik, Saint-Christophe laborantza li-

zeoak 217 ikasle biltzen ditu, beraz, orotaraz 882 ikasle ari dira Senperen.

Oxtikeniako gazte taldeak igorritako oharra

«Hemen idazten duguna ohar bat bakarrik da baina gure iduriko inportantzia haundikoa.»

«Udan zehar oharu gira euskaldun bategon dela Herriko Etxeko errezepzioan. Gure herriko zerbitzuak euskaraz izatea gauza arrunt bat izan beharko litza ke baina zorritzarez errealitatea bestelakoa da. Dena den, argi da jende frango herriko etxean euskaraz mintzatzeaz pozten dela. Beraz, ondoko denboretan euskaldun gazte hunek, hain ongi betetzen duen errezepzioko lanean segituko duela espero dugu.»

flash

Gimnastika zaleak

Uda bururatzearrekin elkarteek beren aktibitateak hasten dituzte berriz ere. Gimnastika zaleentzat Tiirritak taldeak hiru hitzordu proposatzen ditu aste guziz astelehen, asteazken eta ortzegunetan Elkartetxean. Xehetasunak 0559541930 edo 0559541882.

Tenis jokalariaik

aldiz betiko tenoretan elkartekoak dira aintzira ondoan.

Espainola

Elkartetxean aste guziz espainola erakasten da. Izenak eman deituz 0559541671.

Arte martzialak

Arts martiaux direlakoak ere egin daitezke herrian asteazkenetan 4ak eta 5ak artean edo ortzegunetan 6,30 eta 8ak artean. 0672101898.

Katexima

berri ere hasten da asteazkenetan, CE2 klasekoentzat 9ak eta 11ak artean Emakhor gelan eta tenore bertsuetan bainan San Josep eskolan CMI eta CM2koentzat. CP eta CE1koentzat sartze eguna buruilaren 27an izanen da San Josepen.

SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen
 Benta Biok-en,
 Benta Mirentxuren
 ondoan
 © 0034948630424

Hogeita hemezortzi ikasle hasi dira aurtengo ikasturtean

Hogeitikiak Zugarramurdin daude eta bertzeak Urdazubin

MARGARI ETA KORO

Inailean gaude eta hila bete hunek ekarki duen aldakuntza nabarmena eskolak hasten direla da, eta ikasturte honetan berritasun batekin gainera: haurrak garraiatzen dituen autobusak zaindari bat izan behar duela.

Zugarramurdi eta Urdazubiko haurrak bi herrietako eskolatan banatzen dira: 20 haur Zugarramurdin (Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako bigarren maila arte) eta 18 Urdazubikoan (hirugarren mailatik DBHko bigarren maila arte) eta bi eskolak lotzen dituen autobus garraio hontan Mertxe Sansiñena izanen dugu zaindari bezala. Postu honetarako bi lagun aurkeztu ziren interesatuak eta ondarean aipatzen dugun



Martin Aintziartek kilotik goitiko onddoa bildu zuen Etxalar inguru horretan. Bertze biak ere ez dira nolana hikoak.

Mertxe suertatu da izendatua.

Onddo ederrak hartu ditu Martin Aintziartek

Abuztu erdi aldean gure zonalde hontan

onddo franko atera ziren, eta afizio hau daukatenek gustuko egunak izan zituzten. Hoietakorik bat Martin Aintziarte dugu eta argazkian ikusten duzuen bezala harro egoteko

motiboak badauzka: argazkian ageri diren onddoak Etxalarako eremuan hartu zituen, handienak kilo pasa eta 30 zentimetroko diametroa zeukan eta bertze biak ere ez dira makalak.

